



DIRULAGUNTZA DEIALDIA, OLTZAKO ZENDEAKO ESTABLEZIMENDUETAKO ERROTULUETAN EUSKARA ERABILTZEKO

XEDEA:

Oltza Zendeako Udalak diru-laguntzak emanen dizkie udalerriko establezimenduei jarritako errotulazioan euskara erabiltzen badute (fatxada, erakusleiho, eguzki-oihal eta ibilgailu komertzialetan), honako arau hauek jarraituta:

ARAUAK:

1. Oltzako Zendeako Udalak errotulu berrien gastuaren %50eko laguntza emanen du establezimenduak errotulu berrian euskara erabiltzen badu. Gehienez ere 300 euroko laguntza emanen du errotulu berri bakoitzeko.
2. Dendariak ez du diru-laguntzarik jasoko errotulu berrian izen berezia soilik agertzen bada; adibidez, "Arantxa" edo "Tximeleta". Aldiz, jasoko du diru-laguntza izen generikoa ere agertzen bada, esaterako, "Arantxa oinetakoak" edo "Tximeleta belar-denda".
3. Diru-laguntza jaso ahal izateko errotuluak zuzen idatzita egon beharko du. Horretarako, laguntzen onuradun izan daitezkeen haiek Udaleko Euskara Zerbitzuaren doako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua erabili ahalko dute.
4. Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz egiten badira, hizkuntza bakoitzean agertzen den testuak antzekoa izan beharko du neurriari, kokapenari eta gainerako ezaugarriei dagokienez.

5. Diru-laguntza eskatzeko prozedura. Eskaera errotulu berria jarrita dagoenean eginen da. Eskatzaileak, eskaera-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztuko ditu Udal Erregistroan: errotuluaren faktura (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua) eta errotuluaren bi argazki (bat orokorra, aurrealde osokoa; eta bestea zehatza, errotuluarena).

Aurkeztutako eskabidea deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpena bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazten duen bezala.

6. Diru-laguntzaren esleipena. Euskara Zerbitzuaren txostena jasota, Udaleko Gobernu Batzordeak erabakiko ditu jasotako eskaerei dagozkien diru-laguntzak. Diru-laguntzak erregistroko dataren arabera hurrenkeran esleitu dira, diru-saila agortu arte. Euskara Zerbitzuaren txostena aldekoa izanda ere, diru-laguntza ematerik ez badago, kontu-saila agortuta dagoelako, eskatzaileak berriro eskatu ahalko du diru-laguntza hurrengo urteko lehenengo hiru hilabeteetan. Udalak horrela jakinaraziko dio eskatzaileari.

7. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI- ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien eskumeneko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik BI HILABETEKO epean.

GORA JOTZEKO errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta ONDOKO HILABETEAN.

BERRAZTERTZEKO errekurtoa, egintza ebatzi duen organoari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean.

8. Deialdia urtero zabalduko da Oltza Zendeako Udalak urteko aurrekontua onartzearekin batera, aurrekontuan deialdi honetarako dirurik erreserbatu bada. 2016. urtean bideratuko dira 2016. urteko erregistro-data duten eskaerak.

9. Jarduera eta obra lizentziarekin batera, Udalak interesdunei gai honen inguruan lortu daitekeen diru-laguntzaren berri emanen die.

10. Arautzeko legedia. Deialdia hemen azaldutako oinarrien arabera arautuko da. Agiri honetan esaten ez denaz ebazteko honako arautegi honi begiratuko zaio:

- Oltzako Zendeako Udalaren urteko Aurrekontua burutzeko araudia eta, osagarritzat hartuta, Dirulaguntzei Buruzko 28/2003 Lege Orokorra.
- Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Ogasun Publikoaren 13/2007 Foru Legea eta, osagarritzat hartuta, Aurrekontuen Lege Orokorra.
- 887/2006 E.D (Araudia)